6.PRAKTIKA:
Atalak: 3.4, 3.5, 3.6, 4.1 eta 4.2
(2014ko urriaren 29)

1.- Ondoko funtzioak kontsumitzaile baten UTx erakusten du: UTx= $\sqrt{x}$
a) UMa_x kalkulatu.
b) UTx eta UMa_x grafikoki azaldu.

2.- Suposatu kontsumitzaile batek bokatak eta izozkiak erosi nahi dituela. Bere errenta R=24 euro, eta dena gastatuko du bi ondasun horiek erosten. Bokataren prezioa 2 euro da eta izozkiarena 4 euro. Aztertu nola banatu behar duen bere errenta bi ondasun horiek erosterakoan bere baliagarritasuna (UT) maximizatzeko (Aukera optimoa). Kalkulatu aukera horrek kontsumitzaileari ematen dion UT.
Ondoko taulak ondasun bakoitzaren baliagarritasun totalak jasotzen ditu.

Bokatak		Izozkiak	
Unitateak Q_B	Baliagarritasun Totala - UT_B	Unitateak Q_I	Baliagarritasun Totala – UT_I
0	0	0	0
1	14	1	30
2	26	2	50
3	36	3	68
4	44	4	84
5	51	5	98
6	57	6	111
7	62	7	123
8	66	8	134

Ondoko bi baldintzak betetzen direla egiaztatu:

1) $\frac{UMa_B}{P_B} = \frac{UMa_I}{P_I}$

2) $R = P_B \cdot Q_B + P_I \cdot Q_I$

3.- Suposatu hanburgesa-merkatua ondoko ekuazioen bitartez deskribatzen dugula
$D: Q_H^d = 1000 - 5P_H - 2Y - 0.1P_f$; $S: Q_H^S = 190 + 4P_H$

Non: $P_H = hanbugesaren\, prezioa$
$Y = kontsumitzaileen\, errenta$
$P_f = patata\, frijituen\, prezioa$

a) Merkatu oreka kalkulatu $Y = 100€$; $P_f = 100€$ direnerako. Grafikoki ere erakutsi.
b) Kontsumitzaileen errenta aldatu egin da, orain $Y = 200€$ balio du. Gainerako aldagaiak ez dira aldatu. Oreka berria kalkulatu eta emaitzaren arabera hanburgesak sailkatu.
c) Patata frijituen prezioa aldatu egin da, orain $P_f = 150€$ da. Gainerako aldagaiak "a" atalean ditugunak dira. Oreka berria kalkulatu eta emaitzaren arabera hanburgesak eta patata frijituak nola erlazionatzen diren aztertu.
d) Goiko hiru atalak grafikoki erakutsi eskariaren lerradurak (desplazamenduak) arrazoitu.

4.-Suposatu kontsumitzaile batek Pizzak eta freskagarriak erosi nahi dituela. Bere errenta 50€ da eta dena gastatuko du bi ondasun horiek erosten. Pizzen prezioa 10€ eta freskagarriena 5€ dira.

a) Nola banatu beharko du bere errenta bi ondasun horiek erosterakoan bere baliagarritasuna maximizatzeko? Lortzen duen baliagarritasunak zenbat balio du? Ondoko taulak ondasun bakoitzaren baliagarritasun totalak jasotzen ditu:

Pizza–unitateak Qp	Baliagarritasun Totala (UTp)	freskagarri-unitateak Qf	Baliagarritasun Totala (UTf)
0	0	0	0
1	80	1	45
2	150	2	85
3	210	3	120
4	260	4	150
5	300	5	175
6	330	6	195

b) Hautaketa optimoak bete behar dituen bi baldintzak zein diren seinaleztatu eta egin duzun ariketan ere betetzen direla egiaztatu.